

GEORGES ROUAULT. SAKRATUA ETA PROFANOA ERAKUSKETA

Arte Garaikideko Aretoak, 10/11/15–11/02/13

PARISKO CENTRE GEORGES POMPIDOU zentroak ekoitzia

Georges Rouault. Sakratua eta profanoa erakusketak 156 artelan —olioak, grabatuak eta beirate bat— bilduko ditu Bilboko Arte Eder Museoan, 2010eko azaroaren 15etik 2011ko otsailaren 13ra bitartean. Modu horretan, XX. mendeko artistarik esanguratsuenetako bat ezagutzeko aukera dago. Ez da ohiko atzera begirakoa, nahiz eta artistaren lan garrantzitsuenak aurkeztuko diren, hala nola, *Parade* (c. 1907–1910), *L'apprenti-ouvrier* (1925), *Véronique* (1945) edo *Miserere* grabatu-saila. Erakusketaren originaltasuna honetan datza: Georges Rouaulten (Paris, 1871-1958) tailerreko —artistak oso gutxitan eman zuen baimena bertara sartzeko— lan ezezagun (Europar) eta amaitu gabe ugari aurkeztuko dira, Marthe Rouault alargunak eta bere seme-alabek 1963an Estatu frantsesari dohaintzan emandakoak.

Aukeraketa hau aurkeztuta —Parisko Centre Georges Pompidou zentroarekin lortutako akordio bati esker—, ikusleari aukera eman nahi zaio artistaren lanean eta bizi izan zuen bilakaeran barneratzeko; izan ere, materia piktoriko arinarekin eta ukitu kromatiko urdinxkarekin egindako lehenengo lanetatik hasi, eta kolore beroagoa eta materia trinkoagoa duten azken lanetarainoko bilakaera ikusi ahal izango dugu.

Halaber, gai sakratuen eta profanoen arteko nahasketa estuak (ohikoa bere karreran) Georges Rouaultek giza izaerarekiko zuen interes handia erakusten du, espresionismo espiritualaren antzeko zerbaitekin, joan den mendeko lan piktoriko originalenetakoa sortu baitzuen.

Hain zuzen ere, gai sakratu eta profanoen —zirkuaren mundua eta bertako pertsonaiak elementu paradigmatico gisa— arteko uztartze hori da Rouaulten lanaren eta asmoaren ezaugarria: giza arimaren duintasuna erakustea. Horretarako, Rouaultek “formaren, kolorearen eta harmoniaren” printzipioak ditu gidari; erakusketa honek, egiteko bidean dauden lan ugari bilduz, nabarmen erakusten ditu printzipio horiek.

Centre Georges Pompidou zentroko kontserbatzailea den Angela Lampe komisarioak gidatuta, *Georges Rouault. Sakratua eta profanoa* erakusketa lau atal handitan banatzen da: zirkuei buruzko lehenengo garaiko koadroak; Rouaultek tailerrean amaitu gabe utzi zituen lanak, 1958an hil zenean; *Miserere* izenarekin ezagutzen den estanpen zikloa; eta, azkenik, artelan berantiarren multzo bat. Erakusketarekin batera argitaratu den katalogoak atal horiek eta erakusketarako aukeratutako artelan nagusiak —bere autorretratu ospetsutik hasita— aztertzen dituzten artikuluak eta aipamenak ditu, bai eta amaitu gabeko lanen fondoak ere.

1.- ZIRKUA

XIX. mendearen amaieran eta XX.aren lehen hamarkadetan, eta Daumier, Degas, Toulouse-Lautrec edo Picasso bezalako artisten lanetatik abiatuta, zirkuaren munduak eta bertako pertsonaiek sona handia hartu zuten gai artistiko gisa. Gai herrikoia da, eta, gainera, bi arrazoigatik erakartzen ditu artistak: batetik, esperimantazio plastikorako aukera hobeak ematen dituelako, bertako protagonistak diren figurak pintatzeko orduan; bestetik, nolabaiteko maila morala jartzen du agerian, giza izatearen alegoria sozial eta espirituala erakusten duelako, eta, batzuetan, bazterkeriarena ere bai. Gai horietan, Rouaultek kolore fauvistak eta trazu urduriak erabili zituen, baina, 1913tik aurrera, ezaugarri horiek grafismo zabal eta erabateko bihurtu ziren, materia piktorikoz gero eta beteagoak.

Arlo biak, forma artistikoa eta eduki morala, interes handikoak izan ziren Rouaultentzat; hainbeste, ezen zirkuari buruzko gaiak bere produkzioaren herena hartzen baitute, hau da, zazpiehun artelan inguru. Pailazoen, akrobatek, malabaristek, dantzariak eta *commedia dell'arte* delakoko pertsonaia klasikoek formarekin eta kolorearekin esperimantatzeko aukera ematen zioten, eta, aldi berean, giza bakardadeari eta miseriar buruz hausnartzeko balio zion. Kezka horren jatorrian bi arrazoi zeuden, beste zenbaiten artean: erlijiorako itzulera, eta, 1898an, Gustave Moreau margolari sinbolista frantziar ospetsuaren heriotzak sorrarazi zion zirrara, haren lagun eta dizipulua izan baitzen, Matisse eta Marquetekin batera.

2.- AMAITU GABEKO LANAK

1917an, Ambroise Vollard arte-merkatari ezagunak tailer bat jarri zion Rouaulti bere jauregitxoan, eta kontratu bat sinatu zuen harekin. Kontratuko klausula bati esker, artistak bere erritmoan amaituko zituen artelanak. 1939an, Vollard auto-istripu batean hil zen, eta bere oinordekoek tailerra prezintatu zuten. Rouaultek irabazitako prozesu luze eta mingarri baten ostean, 1947an 700 artelan itzularazi behar izan zizkieten. Rouaultek erabaki zuen 315 artelan erreko zituela, zeren eta, adinean oso aurreratuta zegoenez, ez zuen aukerarik izango lanok amaitzeko. Margolariaren alargunak eta seme-alabek, 1963an —margolaria hil eta bost urtera—, Frantziako Estatuari eman zizkieten dohaintzan Rouault bizi izandako beste hamar urteetan suntsitu edo amaitu ez ziren itzulitako lanak. Dohaintza hori fondo erreserbatu gisa egon zen urte luzez; ekimen horretan, Parisko Musée national d'art moderne museoko kontserbatzailea zen Bernard Dorivalek hartu zuen parte, eta De Gaulle jeneralaren menpeko André Malraux kultura ministro ospetsuaren babesa ere izan zuen.

Lan horiek (orain 72 daude ikusgai) argi uzten dute artista hau inoiz ez zela erabat gustura geratzen, eta behin eta berriro bueltatzen zela gai berberetara: Kristo gurutzean, *Le Cirque de l'Etoile filante* lan literariorako ilustrazio-saila, dantzariak, figurak eta biluziak, eta paisaia ugari. Rouaultek sailka egiten zuen lan, etengabe esperimentatuz koloretako harmonia eta formekin, agerian utziz artistak asmo sortzaile eta esperimentala zuela, gaiari estu heltzeko beharrezana baino gehiago.

3.- MISERERE

Ziurrenik, Rouaulten lanik ezagun eta garrantzitsuenetakoa *Miserere* da; izan ere, urte luzez aritu zen obra horretan lanean, eta, hori dela eta, bere produkzioaren zati handi bat ardazten du. 1922 eta 1948. urteen artean egindako 58 estampa dira; hain zuzen ere, estampa horiek margolariaren aitaren heriotzan dute jatorria, 1912an. Sufrimendua ilustratzen dute, bi zatitan banatutako kalbario moduko baten bitartez: lehenengoak, gutxi gorabehera 33. estampa heldu arte, *misererea* erakusten du; 34.etik 58.era, berriz, gerraren tragedia agertzen da. Lan honek giza zoritxarra grabatuen bitartez islatzeko tradizioari eusten dio; Jacques Callotek eman zion hasiera joera horri 1633an, *Les grandes misères de la guerre* lanarekin, eta Goyak maisuki eman zion jarraipena 1810-1829an, *Gerraren hondamendiak* lanarekin. Rouaulten sailean, Kristo ziklo bakoitzaren hasieran eta amaieran agertzen da, eta horrek esperantzaz betetako mezua ematen dio multzoari: pertsonaia apal eta bakartien sufrimenduaren erdian —erbestatuak, eskaleak, soldaduak, prostitutak...—, Rouaultek arlo sakratua sartzen du —Kristoren bizitzako eszenak, Aurpegi Santuaren irudiak...—, sakratuaren eta profanoaren arteko itxaropenezko oreka lortuz.

4.- LAN BERANTIARRAK

1939ko *Kristo zutabeari lotuta* beiratea aro honetako obra berezia da, kontuan hartu behar baita garai hartan Rouault artista ezagun eta errespetatua zela. Lan honekin, Rouault bere jatorrietara bueltatu zen, zeren eta maisu beiragile batekin ekin zion bere ikasketa artistikoari. Ingurune beltza, bere pintura eta grabatuetan ohikoa izaten zena, beirateen berunetik zegoen eratorrita, ziurrenik. Margolariak antzinako beirateak miresten zituen, Erdi Arotik zuten funtzio sinboliko eta erlijiosoagatik. Beste alde batetik, produkzioa gremioen bitartez antolatzeko Erdi Aroko erak ere lilura sorrarazi zion Rouaulti, eta, 1901ean, artisten komunitate bat sortzen saiatu zen Ligugéko abadia beneditarrean, ahaleginak porrot egin bazuen ere.

1945-1947tik aurrera, Rouaultek estiloa aldatu zuen, eta garrantzi handiagoa ematen hasi zitzaion materia piktorikoari; hori horrela, olio mihisearen gainazalean lantzen hasi zen, modu horizontalean, olioari erliebe moduko bat eman arte. Horrekin batera, garai bertsuan, kolorea epelagoa eta argitsuagoa bihurtu zen, eta horiak, gorriak, laranja eta berdeak hasi ziren nagusitzen. Horrek intentsitate espresiboa areagotu zuen, denborarekin Rouaultek marrazkiari emango zion sinplifikazioaren aurrean. Gauza biek, materiak eta koloreak, optimismoz bete zuten bere amaierako lana. Hasierako fasean hainbestetan agertzen ziren zirkuko gaiek presente jarraitzen zuten, eta Gurutziltzaketaren eta Aurpegi Santuaren irudiek ere bai, baina paisaia maizago hasi zen agertzen. "Paisaia biblikoak" izenekoak dira; bertan, Rouaultek, materiaz betetako plano horizontalen bitartez, pasarte ebanjelikoak irudikatu zituen modu sintetikoan, zuen espiritualtasun sutsua amaierara arte azaleratuz.